


Euskal AEko eraikuntza kostuak %0,3 jaitsi ziren 2015eko urrian aurreko hilaren aldean

2014ko urriaren aldean eraikuntza gastuak %0,7 gutxitu dira

2015eko urrian, Euskal AEko Eraikuntza Kostuen Indizea %0,3 jaitsi zen, aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasan %0,7, EUSTATEN datuen arabera.



Aurreko hilaren aldean, lan-eskuaren kostua ez da aldatu (%0,0); lehengaien kostuak %0,4 gutxitu dira.

Urrian Etxegintza (%-0,3) eta Obra Zibila (%-0,7) azpisektoreetan jaitsierak lehengaien kostuetan, aurreko hilaren aldean. Urte artean: Etxegintzako lehengaien kostuetan %-0,5; Obra Zibilekoenetan %-3,7.

Konsumitutako lehengaietan urte artean (2015eko urria 2014koaren aldean) prezio hazkunderik handienak: Zurgintza (%2,9), Energia elektrikoa eta gasa (%2,6), Kautxu eta

plastikoa (%0,7). Lehengaien prezio jaitsierarik handienak azken hamabi hiletan: Petrolio-fintzea (%-25,2), Metalurgia (%-6,5), Industria kimikoa (%-2,2).

1. TAULA. EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. ALDAKUNTZA TASAK (p). 2015EKO URRIA

	INDIZEA	ALDEAREN %		
		m/m-1	m/m-12	m/abendua
GUZTIRA	101,5	-0,3	-0,7	0,0
Eraikinak	101,7	-0,3	-0,3	0,1
Obra zibila	100,2	-0,5	-2,8	-1,0
LEHENGAI	100,3	-0,4	-1,0	-0,1
Eraikinak	100,6	-0,3	-0,5	0,1
Obra zibila	98,5	-0,7	-3,7	-1,4
LAN-ESKUA	105,7	0,0	0,3	0,3

Oinarria 2010=100

(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Eraikuntzako kostuen indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago (EEKI)

Euskal AEko Eraikuntzako kostuen indizeari buruzko datu-bankua (EEKI)